



## **ASTIGARRAGAKO UDALAREN ADMINISTRAZIO EPEAK ETENDA**

Covid-19 gaixotasunaren pandemia dela eta ezarri den alarma egoerak eten egin ditu administrazio publikoen espedienteetako prozeduretako epeak. Epeak eteteak esan nahi du alarma egoera indarrean sartu zen unean espediente jakin batek (hautaketa prozesu batean izena emateko epea, dirulaguntza eskatzeko epea, alegazioak aurkezteko epea...) betetako egun horretan geratu dela eta alarma egoera bertan behera geratzen denean jarraituko duela.

Bi taula dituzu ondoren: lehendabizikoan daude zehaztuta hasi eta bidean etenda geratu diren deialdi eta espedienteak; bigarreanean oraindik epea hasi gabe dutenak (kasu horietan alarma egoera amaitu eta hurrengo egunean hasiko da epea).

Astigarragako Udala  
2020-04-23

## 1. Hasi eta bidean etenda geratu diren deialdi eta espedienteak

Taulan zehaztuta dago espedientea, noiz argitaratu zen, epeladi osoaren zein zati bete den eta amaitzeko zenbat egun falta diren. Falta diren egunak kontatzen hasiko dira alarma egoera amaitu eta hurrengo egunetik hasita.

Espedientea	Argitaratze data	Jendurrean egon behar duen denbora	Eskaerak aurkezteko denbora-tartea	Gauzatutako egunak	Falta diren egunak
Haur eskolako proiektuak idaztea eta zuzendaritza fakultatiboa eramatea	2020-03-10		15 egutegi-egun	4	11
Hirigintzako aholku batzordearen araudia	2020-03-03	30 egun baliodun		11	19
Ezkontza zibilen ospakizunak arautzen dituen ordenantza	2020-02-26	Apirilaren 1a arte			18 egutegi-egun
Udal kirol instalazioen araudi	2020-02-26	Apirilaren 1a arte			18 egutegi-egun
Kirol arloko diru-laguntzen deialdia	2020-03-05		Hilabeteko epea	9	22
Berdintasun arloko diru-laguntzen deialdia	2020-03-05		Hilabeteko epea	9	22
Kultura, euskara eta jai arloetako diru-laguntzen deialdia	2020-03-06		Hilabeteko epea	8	23

## 2. Alarma-egoera amaitu eta hurrengo egunean zenbatzen hasiko diren epeen espedienteak

Espediente hauek onartuta daude. Kasu batzuetan argitaratu ere egin dira, baina epeak kontatzen hasiko dira alarma egoera amaitu eta hurrengo egunean.

Espedientea	Argitaratze-data	Jendaurrean egon behar duen denbora	Eskaerak aurkezteko denbora-tartea
Udaltzaingoaren 2. agente plaza betetzeko oposizio-lehiaketa	2020-03-13 (ostirala)		20 egutegi-egun
Udaltzaingoaren agente lehenaren plaza bat betetzeko oposizio-lehiaketa	2020-03-13		20 egutegi-egun
Udaltzaingoaren ofizialordearen plaza bat betetzeko oposizio-lehiaketa	2020-03-13		20 egutegi-egun
Ergobia auzoa 2. hirigintzako esku-hartze eremuko Pagoaga 2.6. HJUari dagokion hiri-antolamenduko plan berezia.	2020-03-17	Hilabete	
Garapenerako lankidetzaren programaren diru-laguntzak. Lankidetzaren proiektuak lantzeko lerroa	2020-04-15		Hilabete
Gizarte zerbitzu arloan 2020 urtean garatuko diren jardueren, proiektuen eta programen dirulaguntzetarako oinarriak eta deialdia.	2020-04-15		Hilabete
Gizarte-zerbitzuetan 2020rako ezarritako diru-laguntzen programen barruan tasak eta prezio publikoak ordaintzeko dirulaguntzen oinarriak eta deialdia.	2020-04-15		Hilabete
Astigarragako Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko HEA 2 "Ergobia Auzoko" HJU 2.6ko "Pagoaga" eremuko Hiritartze Jarduketa Programa.	Argitaratzeke		20 egun